



5 gazte plana plan joven

o.4

000

SARRERA

0.1. Gasteizko Gazte Planen historia laburra

o.6

001

XEDEA ETA PLANAREN IKUSPEGIA

o.8

002

PRINTZIOPIO GIDARIAK

- 2.1. Jasangarritasuna
- 2.2. Erantzukidetasuna
- 2.3. Genero-ikuspegia
- 2.4. Ekitatea
- 2.5. Euskara
- 2.6. Errespetua eta bizikidetzatza
- 2.7. Ikuspegi integrala

o.12

003

ARDATZ EGITURATZAILEAK

- 3.1. Kalitatea
- 3.2. Hurbiltasuna
- 3.3. Parte-hartzea
- 3.4. Zeharkakotasuna

o.14

004

LEGE-ESPARRUA

- 4.1. Europako eta munduko esparrua
- 4.2. Nazioarteko esparrua
- 4.3. Esparru autonomikoa
- 4.4. Tokiko esparrua

o.18

005

ERREALITATEAREN DIAGNOSTIKOA

5.1. "Erronka: Gazteak" Gazte Plan Bereziaren ebaluazioa

5.2. Gazteen errealitateari buruzko Behatokiaren txostenak

- 2020ko behatokia
- 2021eko behatokia

5.3. EGK – Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren txostenak

- Mugen mugetatik, #IkusGaitezen: Gazte migratzaileekin etorkizunera begira

- Haziak Astialdira. Denbora libre hezitzailean hezkidetzak duen lekuaren gaineko gogoetak

o.26

006

PLANA EGITEKO PROZESUA

6.1. Abiapuntua: jarduteko arloak

6.2. Parte-hartze prozesua

- Gazteria elkargunea
- Gazteak
- Udal-zerbitzuak
- Erakundeak
- Gazteria arloko eragileak

6.3. Lehenengo zirriborroa eta kontrastea

6.4. Behin betiko dokumentua egitea

6.5. Dokumentua baliozkotzea

o.34

007

PLANAREN EGITURA

7.1. Jarduketa arloak

- Emantzipazioa
- Ekitatea
- Osasuna
- Herritartasuna
- Sormena
- Tokiko-Globala

o.96

008

EGUTEGIA ETA AURREKONTUA

o.98

009

EBALUAZIO-SISTEMA

9.1. Eraikitze-prozesuaren ebaluazioa

9.2. Helburuen irismenaren ebaluazioa

9.3. Ardatz egituratzaileen ebaluazioa

9.4. Efizientziaren ebaluazioa

9.5. Inpaktuaren ebaluazioa

SARRERA

000



Gasteizko Udalaren Gazte Planak dira gazteen ikuspegia udal-ekintzaren arlo guztietan txertatzeko eta gazteei dagokienez tokiko administrazio publikoak egiten duen lana bateratzeko tresna.

Gazteei buruz jarduten dugunean, kontuan hartu behar ditugu Gazteriaren Euskal Legeak¹ ezartzen dituen mugak. Honela definitzen ditu lege honek gazteak: 12 eta 30 urte artekoak, biak barne, baina haien izaera edo helburuak eta programa eta jarduketa jakin batzuk direla eta beste adin-muga bat izan daiteke, esaterako, etxebizitzarekin zerikusia dutenetan adina 35 urtera arte igotzen da. Halaber, nekazaritza arloan gazteak 40 urte arterainokoak dira.

Datu demografikoei dagokionez, udalerriko biztanleria osoa 253.164 pertsonakoa da, eta horietatik 59.673 dira 12 eta 35 urte artekoak, hau da biztanleriaren % 23,57.

Nahiz eta plan honek 2023-2025 hirurtekoan zehar egiteko ekintza zehatzak planteatzen dituen, kontuan izan behar da gazteen errealitatea aldatzen doan errealitatea dela. Horrenbestez, une oro gogoan izan behar da baldintza hori gazteekin zerikusia duten neurriak une bakoitzean dauden baldintzetara egokitu ahal izateko nahikoa malgutasun izateko.

0.1.- Gasteizko Gazte Planen historia laburra

2005etik Gasteizko Udalak gazte-planak egin ditu udal-jardueraren arlo guztietan eta udaleko sail guztietan garatzen diren gazteriaren politikak egituratzeko tresna gisa. Gainera, Udalak garatutako politiketan parte hartzen duen gazteriaren arloko Gasteiz Gaztea eragileen sarearen bilakaerarekin, udalerriko gazteekin eta gazteentzat gazte-planak egiteko bidean aurrera goaz.


- I. Udal Gazte Plana (2005-2008).
- II. Udal Gazte Plana (2010-2012).
- III. Udal Gazte Plana (2013-2015).
- IV. Udal Gazte Plana (2017-2019).
- “Erronka: Gazteak” Gazte Plan Berezia (2020-2021).

Bilakaera horren barruan eta Gazte Plan Berezia amaitu ondoren, hiru urteko iraupena (2023-2025) izango duen Gazte Plan arrunta egiteko apustua egin da, epe ertainerako plangintza egin ahal izateko. Plan horretan, gazteentzako eta haiekin lan egiten duten erakundeentzako politikak gazteen parte-hartzearen eta inplikazioaren alde egingo dute, eta plan gertukoa, kalitatezkoa eta egungo errealitatera egokitua egingo da lankidetzan.

¹ Gazteriari buruzko martxoaren 10eko 2/2022 Legea.

XEDEA ETA PLANAREN IKUSPEGIA

001



XEDEA

Udal Gazte Planaren helburua da pertsona gazteei bizi-proiektua sortzeko aukera ematea, laguntza proaktiboaren bitartez, bizitzako une bakoitzera egokituta eta prozesuaren edozein fasetan: emantzipazioan, prestakuntzan, autonomiaren ikaskuntzan, enpleguaren bilaketan edo lan-munduaren barruan, etxe independentea eratzerakoan...

Asmoa gazteak aldaketa sozialerako eragile bihurtzea da, eragiten dieten eta haientzat kezagarriak diren alderdi guztietan parte hartuz, eta bizi diren hirian eta gizartearen herritar aktiboaren rola hartzeak dakarren ahalduntzearen bitartez.

Horretarako, Gazte Planak gazteen protagonismoa, parte-hartzea eta inplikazioa sustatuko ditu proposamenak diseinatu eta aurrera ateratzeko garaian. Proposamen horiek, beraien bizi-proiektua garatzen ari diren pertsonen ikuspegitik gazteen euren garapenari eta aurrerapenari ez ezik, Gasteiz osoari ere ekarpena egingo diote.

IKUSPEGIA


Gasteiz gazteek beraien bizi-proiektuak eta mota guztietako aurreikuspenak (lanekoak, prestakuntzakoak, sortzaileak, familiakoak...) gara ditzaketan hiria izatea nahi dugu, ulertzen baitugu hori dela biztanleria eta gizarte osoarentzako gizarte-jasangarritasuna izateko bermerik onena.

Sozialki hiri bidezkoagoa, hasierako egoerek amaierako arrakastaren aukerak baldintzatu ez ditzaten.

Gazteek esku hartzen duten eta beraien inguruaren garapenean protagonismoa duten hiria, gizartearen funtzionamenduan parte hartzeko eta eragiteko gaitasuna izan dezaten, beraien errealitatearen ikuspegia eskainiz.

PRINTZIPIO GIDARIAK

002



Printzipio gidariek markatzen dituzte arlo guztietan gazteekin egiten diren udal-jarduketan plangintzarako, exekuziorako, jarraipenerako eta ebaluaziorako funtsezko ildoak. Era berean, planaren edukia inspiratu eta gidatzen dute eta gazteen politikak garatzen diren beharrezko esparrua eratzen dute. Bere horretan ebaluatzen ez diren arren, planaren hainbat arlotan zein gazteen politiketan oro har duten integrazioa ebaluatzen da.

2.1. JASANGARRITASUNA

Gure hirian ingurumenari dagokionez sustraituta dagoen jasangarritasunak ere aurrera egin behar du egungo gazteen artean gizarte- eta ekonomia-jasangarritasuna ere txertatzeko. Ohitura osasuntsuak dituen gizartea, elkartasunezkoa, eskuragarri dauden baliabideekin bat datorren ongizatea lortzeko ardura eta inplikazioa duena izango litzateke gizarte jasangarri eta konprometitu, ez soilik ingurumenarekin, baita gure gizartearen etorkizunarekin ere.

Jasangarria da gertutasunetik abiatuta jarduten duelako, Gasteizen oso desiragarria eta tradizio handikoa den ezaugarria. Jasangarria denboran irauten duen prozesua markatzen duelako, 2030eko gazteriaren politiken eta GJHen esparruko (Garapen Jasangarrirako Helburuak) helburuetarantz aurrera egiteko bidean. Jasangarria gazteen errealitatearen jarduketa eraldatzailea planteatzen duelako.

2.2. ERANTZUNKIDETASUNA

Erantzukizuna, badakigulako gazteen errealitateko arloetan eragiteko beharrezkoa dela eragileen eta gazteen arteko inplikazio koordinatua. Partekatutako erantzukizun horri esker, hobeto erantzun ahal izango diegu udalerriko gazteen beharrei eta aurreikuspeni.

2.3. GENERO-IKUSPEGIA

Genero-ikuspegiarekin lan egitea giza eskubideen ikuspegitik lan egitea da. Alde batetik, ikusarazi egiten du eta, bestetik, emakume gazteek emakume eta gazte izateagatik jasaten duten bazterkeria bikoitzaren aurrean jarduten du, baina baita gay, lesbiana, transexual, transgenero, bisexual eta intersexualek jasaten duten indarkeriaren aurrean ere. Hau da, emakumeen subjektu politikoa zabaldu egiten da, eta haien sexu-generoa edo -identitatea bizi garen heteroarauaren sistema patriarkal honek ezartzen duenarekin bat ez datorrelako bazterkeria jasaten duten pertsonak ere kontuan hartzen ditu.

Bosgarren Gazte Planean ikuspegi hori presente izateko, ildo horretan jardun behar da gure udalerriko gazteekin, gazteentzat eta gazteen artean. Alde batetik, giza eskubideen heziketatik, eta, bestetik, gazteen dibertsitatea eta ahalduentzea ikusaraztetik, haien genero-identitatea, genero-adierazpena eta sexu-orientazioa edozein izanik ere.

2.4. EKITATEA

Gazteen errealitateak mahai gainean jartzen ditu desberdintasunak sorrarazten dituzten askotariko jatorriak, eta hainbat arlotan desabantaila-egoerak sor ditzaketenak: izan osasunagatik, desgaitasunagatik, baldintza sozio-familiarrengatik edo sozio-laboralengatik. Gazteen egoera ugariak kontuan hartuta, planaren helburuetako bat ekitatea lortzea da.

Bestalde, ekitatearen barruan sartzen da hiriaren egunerokoan parte hartzeko irisgarritasuna eta eskubidea gazte guztiei hurbiltzeko ahalegina, haien egoera edozein dela ere. Alde horretatik, udaleko gazteentzako politiken, eta, zehazki, Gazte Planaren bitartez, irisgarritasun unibertsala lortzeko lan egingo dute.



2.5. EUSKARA

Gaur egungo gazteen belaunaldiek hirian inflexio-puntua sortu dute garapen soziolinguistikoari dagokionez. Gaur egun, gazteen erdia baino gehiago da euskalduna, eta % 80 inguruk ulertzen du euskara neurri batean edo bestean. Euskara, horrenbestez, errealitate gaztea da Gasteizen.

Euskararen ikuspegitik, bereziki garrantzitsuak dira gazteek egiten dituzten jarduerak eta ekintzak, bereziki gazteak protagonista direnak. Nabarmentzekoak dira sareak sortzen laguntzen dutenak, ekintza puntualak soilik direnen aldean.

Udaleko Gazte Planak bermatuko du udalak garatzen dituen ekintzek eta gazteei zuzenduta daudenek irizpide horiek betetzen dituztela, eta, kasu guztietan, euskararen presentzia eta erabilera ziurtatuko da.

2.6. ERRESPETUA ETA BIZIKIDETZA

Gazteriar buruz kolektibo homogeen gisa jardutea askotan egiten den akatsa da. Gazteen ezaugarria da kolektibo heterogeneoa dela, bizi-proiektu desberdinak inplikatzeko dituzten egoera sozialak, ekonomikoak eta kulturalak baitituzte. Planak proposatzen dituen estrategiak bariedade horretara egokitzen dira, eta askotariko beharrak dituzten

gazteei egokitutako ekintzak proposatzen dituzte, bakoitzaren erritmoak eta idiosinkrasia errespetatuz.

Gazteen dibertsitate hori presente dago, alde batetik, gazte kontzeptuak barne hartzen duen adinean: 12 urtetik 30era (eta 35era arte alderdi batzuetan, etxebizitzan esaterako). Beste aldetik, baita identitatean ere, askotariko jatorria, kulturak, genero-identitateak eta abar dituzten gazteak baitaude.

Errespetua eta bizikidetzak belaunaldien artean ere. Horretarako, beharrezkoa da gazteen dibertsitate osoaren eta beraien arazo espezifikoaren ikusgarritasuna, presentzia eta protagonismoa lantzea, eta herritar guztiekin zentzu hezitzailetik lantzea, belaunaldi guztiak kontuan hartuta.

2.7. IKUSPEGI INTEGRALA

Gazteak modu integralean ulertzea da errealitatea eraldatzeko ekarpena egiten duen printzipioetako bat. Gazteak behar batekin joaten direnean udal-zerbitzuetara, modu holistikoan ikusi behar dira, ez ikuspegi partzial edo segmentatuan. Ikuspegi horri esker udal-zerbitzuen artean koordinatuta erantzun ahal izango zaie beharrei, eta arreta hobea eskaini.



ARDATZ EGITURATZAILLEAK

003



Ardatz egituratzaileak dira Gazte Plana osatzen duten ekintza guztietan presente egongo diren ildoak. Izenak dioen moduan, programatzeko garaian kontuan izan beharreko ardatzak dira, gero ekintzetan presente egon ote diren ebaluatzeko. Lau dira presente izan beharreko ardatzak.

3.1. KALITATEA

Gazteentzako politikak gizartearen errealitatera egokitu behar dira, gazteen beharrei eta aurreikuspeni erantzuteko. Horregatik, beharrezkoa da gazteen eta haien ingurune sozialaren errealitateari erreparatzea eta ezagutzea, Gazte Planak eta gazteentzako politikak garatzen dituzten gainerako eragileek lantzen dituzten arloetan. Ebaluazioa eta behaketa ezinbesteko elementuak dira gazteentzako politikan garapenaren kalitate horretara iristeko.

3.2. HURBILTASUNA

Gazte Planak udalerriko gazteen hurbiltasunaren aldeko apustua egiten du. Elkar ezagutzak aberastu egiten du lankidetzara eta horregatik udaletik gazteen kolektiboetara eta oro har gazteengana hurbiltzeko lan egingo dugu, eta alderantziz. Ateak irekita izango ditugu haiek hartzeko eta, hala, erlazio estua izateko.

3.3. PARTE-HARTZEA

Gazteak presente egon behar dira udalak planteatzen dituen politikan, bai orokorretan, bai zuzenean eragiten dietenetan. Dimentsio askotatik hartu behar dute parte, eta udal-politika osoa egituratzen duen ardatza izan behar da. Parte-hartzea da bai eskainitako jardueren parte izatea, bai eragile eraldatzaileak eta aktiboak izatea.

3.4. ZEHARKAKOTASUNA

Bai gazteentzako politikan esku hartzen duten udal-sailen, bai Gasteiz Gaztea sareko eragile guztiekin lan egiteko ildoak.



LEGE-ESPARRUA

004



Bosgarren Gazte Plana normaltasun berriaren barruan kokatzen da, bizitzaren agertoki berri batean, eta inoiz baino gehiago hartzen ditu kontuan egokitzea, erresilientzia, berrikuntza eta eraberritzea. Esparru horretan, nabarmendu behar dugu legezko esparrua hainbat ataletan banatu dugula:

4.1. EUROPA ETA MUNDUKO ESPARRUA

- Europako Batzordeko 2001eko azaroaren 21eko gazteriari buruzko Liburu Zuria.
- Garapen Jasangarrirako Agenda eta Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH).

4.2. NAZIOARTEKO ESPARRUA

- 7/1985 Legea, 1985eko apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen.
- Espainiako Konstituzioa. 48. artikulua, gazteriaren parte-hartzeari buruzkoa.

4.3. ESPARRU AUTONOMIKOA

- Udaberri 2024. Bizikidetzaren, Giza Eskubideen eta Dibertsitatearen Plana.
- Gazteriari buruzko martxoaren 10eko 2/2022 Legea.
- Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasunerako Legearen bigarren moldaketarako martxoaren 3ko 1/2022 Legea.
- Euskal Boluntariotzaren Estrategia 2021-2024.
- IV. Euskadiko Gazte Plana 2020: Gazteen arloko euskal estrategia.
- Euskadiko tokiko erakundeen apirilaren 7ko 2/2016 Legea. 17. artikulua – udalerrietako berezko eskumenak 36) Gazteentzako politiken plangintza, antolamendua eta kudeaketa.
- 2007ko otsailaren 22ko Garapenerako Lankidetzari buruzko Euskadiko 1/2007 Legea.
- 211/1993 DEKRETUA, 1993ko uztailaren 20koak, Gazteentzako Informazio Zerbitzuen onespren ofiziala arautzen duena.
- 14/1988 DEKRETUA, 1988ko otsailaren 2koa, Euskadiko Gazteentzako Dokumentazio eta Informaziorako Koordinazio Zentroa eratu zuena.
- 10/1982 Legea, 1982ko azaroaren 24koa, euskararen erabileraren normalizazioari buruzkoa.
- 3/1979 Lege Organikoa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena, 1979ko abenduaren 18koa. 10. art.

4.4. TOKIKO ESPARRUA

- 1992ko urriaren 26an, Arabako Foru Aldundiak, helburu horretarako egindako eskaeraren arabera, Gasteizko Udalaren gazteentzako informazio-bulegoaren onespren ofiziala eman zuen.
- Hiri hezitzaileen gutuna: gutunaren printzipioen barruan, 8.a nabarmentzen dugu,

Gobernantza eta herritarren parte-hartzeari buruzkoa. Hau adierazten du: "haur, nerabe eta gazteei egungo herritarren titulartasuna aitortuko zaie, eta pertsona helduen baldintza berberetan komunitateko bizitzaren kudeaketan eta hobekuntzan parte hartzeko eskubidea izango dute. Horretarako, bide eta tresna egokiak emango dira".

- Udal-planak: Bosgarren Gazte Plana lotuta dago dagoeneko eginda dauden edo eguneratzen ari diren beste udal-plan batzuekin, ezin bestela izan.

Bereziki hauek nabarmenduko ditugu²:

- Gasteizko Berdintasunerako IV. Udal Plana 2018-2021 HARA! Bosgarren Plana egiten ari dira Gazte Plan hau egiteko unean. Bi planen arteko lan-ildo komun nagusiak ahalduntze-eskolaren eta "Libre izan nonahi" programaren ingurukoak dira.

- Euskara Sustatzeko 2019-2022 Ekintza Plana. Gazte Plan hau egiteko unean Plana egiten ari ziren. Euskararen Erabilera Sustatzeko 2023-2028 Plan Orokorrean gazteak protagonista eta helburu dituzten erronkak eta ekintzak planteatuko dira.

- Gasteizko Udaleko Garapenerako Lankidetzaren Plan Zuzentzailea 2016-2019. Plan hori egiten ari ziren Gazte Plan hau egiteko garaian. I. Plan Gaztearen (2023-2025) eta Garapenerako Lankidetzaren Plan Zuzentzailearen (2022-2025) arteko lankidetzaren arlo hauetan artikulatuko da:

- Planak lankidetzarako deialdien lehentasunezko sektore gisa gazteria sartuko du; "gazteen bizi-kalitatea hobetzera bideratutako jarduketak, helburuen artean gaitasunak indartzea, autonomia sustatzea eta emantzipazio politiko, sozial eta kulturala izango ditu".

- Gazteen arteko trukeak egingo dira eta gazteei zuzendutako politiken aholkularitza teknikoa sustatuko da erakundeen, administrazio publikoen eta Gasteizko Lankidetzaren Zerbitzuak kolaboratzen duen herrialdeetako GGKE-en artean.

- 2018-2020 Gasteizko Bizikidetzaren eta Dibertsitate Plana. Gazte Plan hau egiteko unean Plana egiten ari ziren. Plan berria diseinatzeko, harreman estua egongo da bi zerbitzuen artean, ekintza komunak koordinatzeko.

- Herritarren parte hartzerako udal-plana. Herritarren parte-hartze planak (2020-2023 ibilbide-orria) hainbat ildo estrategiko zehazten ditu parte-hartzea sustatzeko eta erabakiak hartzean eragina izateko. Planeko 3. lerroak erreferentzia egiten dio parte-hartzearen kulturari, eta informazioa, komunikazioa eta prestakuntza nabarmen dituzte. Garatu beharreko jarduketaren artean hauek jasotzen dira besteak beste:

- Herritarrentzako sentsibilizazio-kanpaina egitea, parte hartzeko eskubidea gauzatzea sustatzeko eta motibatuzeko.

² Hemen eskuragarri: www.vitoria-gasteiz.org



- Kasu bakoitzerako tresnarik egokienez bitartez, parte-hartze organoetan ordezkari txikiak duten kolektiboekin eta sektoreekin (gazteak, immigranteak...) harremanetan jartzea, informatzeko eta haien behar eta interesetatik abiatuta parte hartzea animatzeko.

Planaren bide-orrian jasotzen diren jarduketak horiek hauetan zehazten dira:

- 28. ekintza: gazteen parte-hartze kultura sustatzea.
- 30. ekintza: parte-hartzeko eskubidea sustatzeko eta motibatuzko herritarren sentsibilizazio-kanpaina egitea.

- Gasteizko Udalaren Plan Estrategiko Kulturala 2018-2021. Planeko lan-lerroetako bat "Kulturarako sarbide unibertsala" da, eta, bertan, esplizituki dago adierazita "gazteentzako kultur berrikuntzarako programak egitea, hizkuntza kulturei, ingurune digitalei edo genero-berdintasunari buruzko alderdiak txertatzeko, besteak beste".

"Gasteizek parte hartzeko proiektuak" atalean ere publikoak zabaltzeko ekimen gisa ageri da nerabe eta gazteentzat espazio publiko berriak sortzeko kontziliazio-neurriak zehaztu eta ezartzea: preskriptoreak, mugitzen diren espazioak, eskaintza berritzailea, sare sozialen eta teknologia berrien erabilera, software librea...

- Hezkuntza Zerbitzuaren Plan Estrategikoa 2016/2022. Gasteizko Udala konprometituta dago gure hiria Hiri Hezitzaile gisa garatzearekin, eta Hezkuntza Zerbitzuaren ezagutzaren, pilotutako esperientziaren eta lanaren garapenaren ondorioz egin da Hezkuntza Zerbitzuaren Plan Estrategikoa. Plan horrek epe luzerako jarduketak-ildoak eta helburuak ezartzen ditu.

- Gasteizko III. Osasun Plana (2022-2027). Gasteizko Udalak urte asko daramatza osasuna ikuspegi biologiko-psikologiko-sozialetik lantzen, eta hainbat faktore hartzen ditu kontuan, hala nola gizarte-sareak eta komunitarioak, hezkuntza, etxebizitza, hirigintza, ingurumena, osasun-arreta, kultura, uraren kalitatea, segurtasuna, laneko giroa, maila sozioekonomikoa, hezkuntza, etab, horiek eragin oso erabakigarria baitute gure osasunean.

- Haur eta Nerabeen Tokiko Plana - HNTP. HNTP haur eta nerabeen eskubideak eta ongizatea bermatzeko aginduari dagokion ekimena da. Planaren misioa udal-ekintza koordinatzea da, haur eta nerabeen eta haien familien eskubideak bermatzeko. Horretarako, bizi-kalitatea hobetzeko udal-jarduketak optimizatzen dira, garapen ebolutibo egokia sustatu eta gizartean eskubide osoko herritar gisa parte hartzea bultzatzen da.

- Mendekotasunak eta antzeko beste nahasmenduak murrizteko IV. Plana. Plan honen xedea udalerriko biztanleen bizi-baldintzak hobetzea da. Horretarako esku-hartzeak garatzen ditu Gasteizko Udalak mendekotasunen arloan egiten dituen esku-hartzeak eta erantzunak esku-hartzeak optimizatuzko xedearekin, drogen erabileratik eta hirian dauden antzeko jokabideetatik eratorritako arazo ondoak murrizteko.

- Kirolaren plan estrategikoa. Gazte Plan hau egiteko unean Plana egiten ari ziren.



ERREALITATEAREN DIAGNOSTIKOA

005



Jarraian, labur azalduko dugu nola egin ditugun Gasteizko gazteek duten egoerari buruzko mapa, eta udalerriko egoerari buruzko informazio eguneratua lortzen lagundu diguten tresnak. Hauek nabarmenduko ditugu duten garrantziarengatik:

5.1. "ERRONKA GAZTEAK" AURREKO GAZTE PLANAREN EBALUAZIOA

Bai maila kuantitatiboan, bai kualitatiboan izandako garapena aztertu ondoren, ikus daiteke benetako erronka parte-hartze aktiboarena dela. Nahiz eta parte-hartzearen eta protagonismoaren ardatz egituratzaileak presente egon diren garatutako ekintzen % 70 eta % 90ean, maila kuantitatiboan parte-hartzeak gorabehera nabarmenak ditu ekintza batzuetatik besteetara. Horregatik, beharrezkoa da gelditu eta parte-hartzearen handitasuna aztertzea, zehaztasunari dagokionez:

- Udaleko zerbitzuek/sailek ekintzen diseinuan, garapenean eta gauzatzean duten parte-hartzea funtsezkoa da gazteriaren zeharkakotasuna dela eta. Datuen arabera, presente egon da "Erronka: Gazteak" programako ekintzen % 70 inguruan. Ebaluazioak jasotzen duen moduan, parte-hartze hori ondo baloratu dute zerbitzuek, eta, ondorioz, sustatzen jarraitu beharrekoko lan-ildoak da. Horretarako, hasieratik inplikatu behar dira zerbitzuak eta sailak, ekintzen erantzunkide senti daitezkeen benetan. Sailen arteko lana aberatsagoa dela eta bi Zerbitzu/Sailek proposatutako helburuak lortzeko ekarpena egin daitekeela ikusaraztea da Gazteria Zerbitzuaren helburuetako bat. Balio gisa sentitu behar da, ez karga baten gisa, eta gauza positibotzat hartzea lortu.

- Hirugarren Sektoreko / Eragileen parte-hartzea: ikusten da lankidetzan aritzeko konpromisoa duten eragile horiek benetako konpromisoa dutela eta egindako ekintzak arrakastatsuak direla. Garrantzitsua da soilik informatiboak (elkarren informazioa trukitzea) diren lankidetzan, soilagoak eta aurrera eramaten errazagoak izan ohi direnen, eta ekintza jakin batzuk egiteko koordinazio-lana behar dutenen artean bereiztea, azken horiek baitira lan gehien dutenak, denbora eta jarduna eskatzen baitute, eta, batez ere, agendak koordinatzea. Aurreko puntuan nabarmendu den moduan, gakoa da ekintzaren hasieratik amaierara horren parte sentitzea.

- Gazteen parte-hartzea: plana gauzatu bitartean hauteman da gazteen parte-hartzea desberdina dela, eta nabarmentzekoa da ekintzak gazteek proposatzen dituztenean



gehiago parte hartzen dutela. Gazteek antolatzeko eta berdinak mobilizatzeko gaitasun handia dute, beraiek dinamizatzen dutenean. Horregatik, udalaren laguntzarekin eta aholkularitzarekin soilik, gai dira beraien proposamenak aurrera eramateko. Aldiz, jarduerak/programak erakundeek eskaintzen dituztenean, esaterako, Elkargune eta parte-hartzeko beste foro batzuen kasuan, parte-hartzea eskasa dela hauteman da, eta banaka ia hutsala. Arreta 17 urtetik gorako gazteengan jarriz gero, programa ikastetxeetako kolektiboarekin garatu ezean, parte-hartzea are txikiagoa da.

- Alderdi politikoen parte-hartzea: babes politikoa funtsezkoa da gazteentzako politiketan aurrera egiteko. Askotariko ekarpenak jaso eta Plan batean bilduz, lor daiteke gero plana onartzeko adostasun politikoa izatea, eta plan komun gisa sentitu eta hautematea. Batzorde politikoak eta kontsulta puntualak egiteak parte-hartze hori sustatzen laguntzen du.

Bosgarren Gazte Planaren helburua parte hartzeko garaian arreta ematen diena zer den jakitea da, ildo horretatik lan egin ahal izateko.

- Egiaztatu da gazteekin harreman pertsonala izatea dela gakoa. Alderdi digitala ondo dago, baina pertsonala ez da ahaztu behar. Gazteekin eta eragileekin harreman zuzena izateko denbora behar denez, hurbiltasunetik eta gertutasunetik lan eginez, presentzia handiagoa eta eskuragarriagoa dugu, eta hurbiltasun horretatik, Gazte Plan berriaren gazte-programazioarengatik eta programazioarentzat parte senti daitezke.

- Halaber, hauteman da protagonistak diren espazioetan eta haiei dagozkiela sentitzen dutenetan parte-hartzea errazagoa dela, hortaz, Gazte Plan honetan landu beharreko ildoak izango da.



5.2. GAZTEEN BEHATOKIAREN TXOSTENAK³

5.2.1. 2020KO BEHATOKIA

2021 hasieran, Behatokiak txosten berria egin zuen Gasteizko gazteen errealitatearen gainean, eta beren bizitzetan eragina duten alderdi nagusiak aztertu zituen. Txosten horretan alderdi hauek jaso dira:

- Arlo demografikoan gazteen kopurua egonkor mantendu da azken urteotan.
- Pandemiaren ondorioz suntsitutako enpleguak gehien kaltetu dituen pertsonak izan dira, eta oraingoan ere agerian geratu da krisi ekonomikoen aurrean duten zaugarritasuna.
- Emantzipazio-prozesuak eten edo atzeratu egin dira zailtasun ekonomikoen ondorioz.

5.2.2. 2021EKO BEHATOKIA

2021 erdialdean, "Covid-19ak Gasteizko gazteengan izan duen inpaktua" txostena argitaratu zen, eta ondorio nagusi hauek atera zituen:

- Gazteentzat joera txarrak zituzten enplegarritasun-adierazle guztiek okerrera egin zuten COVID-19aren krisiaren ondorioz.
- Langabezia gehiago igo da gazteen artean gainerako biztanleria aktiboaren artean baino.
- Emantzipazio-planak atzeratzen ari dira krisiaren ondorioz, eta emantzipazio-tasak okerrera egin du.
- Gazteen osasuna, burukoa batez ere, nahigabetu egin da.

Egoeraren azterketa orokorrez gain, 2021ean bi txosten berezi egin zituzten egoera eta kolektibo zehatzak aztertzeko.

Lehenak, "ABEEEn inpaktua Gasteizko gazteengan" izenekoak, gazteei egindako elkarrizketa sakonen bidez erakusten du laneko ezegonkortasuna eta prekaritatea altuak direla udalerriko gazteen artean, eta

³ www.vitoria-gasteiz.org/juventud webgunean eskuragarri.



egoera horrek eragin nabarmena duela haien emantzipazio-prozesuan.

Bigarren ikerketak, “Pandemiaren inpaktua eta Gasteizko LGBTBI+ gazteengan izan dituen ondorioak” izenekoak, agerian uzten ditu pandemiak kolektibo hori osatzen duten pertsonengan utzi dituen ondorioak. Izan ere, aldaketa-prozesuak moteldu du, trabak jarri ditu sozializatzeko eta espazio publikoan beldur-sentsazioa areagotu du.

2022 hasieran, berriz egin zuen Behatokiak Gasteizko gazteen errealitatearen urteko azterketa, eta aurreko ekitaldiko datuak aztertuta, ondorio hauek atera zituen:

- Lan-merkatuak hobera egin duen arren, behin-behinekotasunak, partzialtasunak eta soldata baxuek markatzen dute oraindik ere gazteen lan-merkatua.
- Azken urteotan emantzipazio-tasan izandako beheranzko joerarekin jarraitu da.
- Etxebizitza bat lortzeko kostuak nabarmen gainditzen ditu gehiegi zorpetzeko



ezarritako mugak, eta babestutako alokairua da gazte gehienek emantzipazio-prozesurako duten aukera bakarra.

2022ko ekitaldian, halaber, Gasteizko gazteen errealitatearen gainean Behatokiak egindako txosten berezi gisa eta Gasteizko Eskualdeko Enpleguaren IX. Planarekin lankidetzan argitaratu da “Gasteizko gazteen buru-osasunaren egoerari buruzko ikerketa-diagnostikoa”. Dokumentu horretan gazteei egindako 1.000 inkestatik gorako datuak eta hezkuntza-arloko eta psikologiako ia berrogeita hamar profesionalen ekarpenak jasotzen dira. Hauek dira ikerketaren ondorio nagusiak:

- Pandemiatik eratorritako egoerek okertu egin dute Gasteizko gazteen osasuna.
- Gazteen % 32,7k adierazi du gaizki sentitzen dela.
- Profesionalak kezkatuta daude Elikadura Portaeraren Nahasmenduekin lotutako kasuen gorakadarekin eta sare sozialen erabilera desegoki eta gehiegizkoarekin.



5.3. EGK - EUSKADIKO GAZTERIAREN KONTSEILUAREN TXOSTENAK

5.3.1. MUGEN MUGETATIK, #IKUSGAITEZEN: GAZTE MIGRATZAILEEKIN ETORKIZUNERA BEGIRA

EGKak 2020ko abenduan argitaratu zuen txosten horrek kontuan izan beharreko hainbat funtsezko ideia jasotzen ditu:

- Kulturartekotasunean oinarritutako gizartearen aldeko apustua egingo bada, ezinbestekoa da askotariko jatorrietako gazteek partekatzen dituzten espazioetan sortzen diren eskaerei eta erronkei aurre egitea.
- Gazte guztiek ez dituzte parte hartzeko aukera berberak. Norbaitek bere oinarrizko bermeak ez baditu bermatuta eta aseta, ezin du sozialki parte hartu.
- Hezkuntzak duen papera nabarmendu da, elkartzeko espazioa izanik garrantzi berezia baitu bizikidetza sustatzeko.
- Gazteak elkartzeko lekuak izatearen beharra aldarrikatu da. Ezinbestekoa da pertsona guztion artean etorkizuna eraikitzeko, eta gizarte inklusiboa eraikitzeko.

Fotos: Nuria Pérez-Cárcamo Samaniego – Uniforma



5.3.2. HAZIAK ASTIALDIRA. DENBORA LIBRE HEZITZAILEAN HEZKIDETZAK DUEN LEKUAREN GAINEKO GOGOETAK


2020an, EGKak jakin nahi izan du denbora libre hezitzailean hezkidetzak nola ematen den. Horretarako, lehenik eta behin, denbora libre hezitzailean sartuta dauden gazteei zuzendutako galdetegia egin du eta, gero, bilerak egin ditu hainbat talderekin gai horretan sakontzeko. Horietan egun dagoeneko ematen diren gogoeta, iritzi eta errealitate edo ekintza batzuk jaso dira, eta horrek etorkizuneko proposamenen bidea zabaldu du. Besteak beste, administrazio publikoentzako proposamen hauek nabarmendu daitezke:

- Aisialdiko taldeak biltzea sustatzen duten espazio parte-hartzaile libreak sortzea.
- Aisialdiko taldeentzat materiala eta laguntza-euskarriak sortzea jolasei buruz, dinamikei buruz eta abar, bai eta jarduketara egokien gidak ere.
- Hezkidetzak lantzeko eta proiektu garrantzitsuak garatzeko dirulaguntzen deialdia.



PLANA EGITTEKO PROZESUA

006





6.1. ABIAPUNTUA: JARDUTEKO ARLOAK

Errealitatearen diagnostikoa egin ondoren eta txostenetatik, azterketetatik eta ekarpenetatik lortutako alderdirik garrantzitsuenak bateratu ondoren, plana sortzeko parte hartu duten eragileekin adostu dira Bosgarren Gazte Plan honen erronkak markatuko dituzten jarduketar- arlo hauek:

EMANTZIPAZIOA

Enplegua.
Etxebizitza.
Hezkuntza formala eta ez formala.

OSASUNA

Buruko osasuna: Emozioen pedagogia.
Hezkuntza afektibo-sexuala.
Bizitza osasungarria.

SORMENA

Adierazpen artistikoa.
Espazio gaztea.

EKITATEA

Bakerako hezkuntza.
Dialogoaren kultura.
Indarkeria matxistaren prebentzioa.
Informaziorako sarbidea.

HERRITARTASUNA

Parte-hartzearen hezkuntza.
Boluntariotza.
Aisialdia eta denbora libre.

TOKIKO-GLOBALA

Harrera.
Elkartasuna.
Gure kultura.
Lurraldearen kohesioa eta garapena.
Ingurumena eta ingurune naturala babestea.
Hiri-jasangarritasuna.

6.2. PARTE-HARTZE PROZESUA

Lan-ildoak ezarri ondoren, parte-hartze prozesua zabaldu da ahalik eta pertsona eta gizarte-eragile gehienei ahotsa emateko, eta jarduketa horien helburuak eta proposamenak lantzeko. Hala egin da plana lankidetzan, parte-hartzearekin eta udalerriko errealitatera egokituta. Prozesua hainbat bidetatik egin da:

6.2.1. GAZTERIA ELKARGUNEA

Gazteria Elkargunea herritarren parte-hartzerako organoa da, eta horren bitartez lankidetzan aritzera eta, udal-politiken, kasu honetan, gazteentzako politiken, diseinuan, garapenean, eta ebaluazioan erantzunkidetasuna izatera gonbidatzen zaie herritarrei.

Elkargune 2021eko martxoan egin zen, eta 14 pertsonak hartu zuten parte, tartean zeuden erakunde hauetako ordezkariak: Gurutze Gorri Gaztea, EGK, Kolonia Euskadi Elkarte, EHU, GEU Elkarte, Egibide, Gazte Sozialistak eta pertsona bat banako gisa.

Gazteriaren Elkarguneraren ardatz nagusia "Erronka: Gazteak" Plan Bereziaren ebaluazioa izan zen, dokumentu honen bosgarren atalean aipatutako txostenak eta ikerketak aurkeztea eta, amaitzeko, Bosgarren Gazte Plana eratzeko prozesuaren berri ematea.

6.2.2. GAZTEAK

Gazteen parte-hartzea izan da Gazte Planaren zutabeetako bat eta sustatzeko bi lan-ildo zabaldu dira.

a) Programatutako jardueren parte-hartzea:

- Escape room: jarduera hau maiatzan egin zen. Jarduera ludiko baten bitartez landu ziren 14 eta 20 urte bitarteko gazteekin beraien bizitzako arloak (osasuna, sare sozialak, garraioa, kultura...) eta hiri hobetzeko iradokitako eremuak. 22 gaztek hartu zuten parte.
- Gazte Lab: hiriko jende gaztearekin (20-30 urte) maiatzan egin zen debatea da. Bertan hiru ildo jakinen gainean eztabaidatu zen: osasuna, tokioa-globala eta sormena. 15 gaztek hartu zuten parte guztira. Horietako batzuk elkarteei lotutakoak eta besteak norbanako gisa.
- Googaz: 16 eta 29 urte arteko gazteekin maiatzan egin zen jarduera ludikoa da. 14 pertsonak hartu zuten parte eta jardueraren ardatz nagusia gazteen etxebizitza-egoera izan zen.

b) Beti zabalik dauden bideetatik parte hartzea:

- Hiretu Hiria prozesu parte-hartzailean jasotako ekarpenak.
Hiretu Hiria ikastetxeetako eta aisialdi-taldeetako gazteei zuzendutako programa da, bai eta 14 eta 18 urte bitarteko gazte-taldeei zuzendutakoa ere (kuadrillak, koroak, kirol-taldeak...). Tailer horien asmoa gazteen artean parte-hartze aktiboa sustatzea da. Parte-hartze horren bitartez, haiek dira landu beharreko gaiak adostasunez aukeratzen dituztenak. Oro har, ingurunearekin zerikusia duten egoerak dira (ikastetxea, auzoa eta hiria). Azken

urtean jasotako esanguratsuenak gai hauen ingurukoak dira:

- Osasuna (elikadura-portaeraren nahasmendua, buruko osasuna, drogen kontsumoa).
- Indarkeriak (familiako gatazkak, homofobia, transfobia, bullyinga, bazterkeriak).
- Ekonomia (hiriko pobrezia, etorkizuneko ziurgabetasuna, etxebizitzaren okupazioa).

- Vitoria-Gazteok kudeatzaile gazteen ekarpenak.

Instgrameko profil honen xedea da gazteek lehen eskutik adieraztea eta kontatzea beren intereseko gaiak. Gasteizen bizi, ikasi edo lan egiten duten 16 eta 35 urte bitarteko pertsonak har dezakete parte. Pertsona gazte desberdin bat arduratzen da 15 egunez profil hori kudeatzeaz.

laz dinamizatu zuten gazteen artean inkesta bat egin zen haien gustuei, kezkei eta interesei buruz, eta hortik ondorio hauek atera daitezke:

-Kezkatzekoa da desberdintasunarekiko eta dibertsitatearekiko, arlo guztietako bidegabekeriekiko, ingurumenaren eta gure planetaren hondamendiarekiko, gazteen buru-osasunaren egoerarekiko eta genero-errekiko dagoen errespetu falta.

-Etorkizunari dagokionez, bidaiatzea, beste kultura batzuk ezagutzea, formatzea, lana bilatzea eta zoriotsu izatea gustatuko litzaieke.

- Hobetuzen esparruan egindako ekarpenak. Hobetuz herritarren parte-hartzerako eta kudeaketarako tresna da, eta horren bitartez herritarrek udal-baliabideen zati baten noranzkoa proposatu eta erabaki ahal izango dute. Demokraziarako zuzeneko tresna da.

Azken prozesuan, gazteei dagokienez, hainbat eskari heldu ziren. Eskari horiek kirolaren (hiriko kirola, kalisteniakiko parkeak, bizikletaren teknifikaziorako zentroak), gazteentzako kultur zentron arlokoak (kasu honetan ikuspegi feministarekin) eta aisialdiari lotutakoak dira (jolaserako parkeak eta aisialdi inklusiboa). Azken horiek Hobetuzek aukeratu ditu eta garatzeko proiektuan daude.



- “¿Conectamos?/Konektatzeko prest?” kanpainan egindako ekarpenak 2021eko azken hiruhilekoko asteburuetan hiriko auzoetan egindako kanpaina da, helburu bikoitzarekin:

- Gazteei zuzendutako (14-20 urte) programen eta baliabideen informazioa auzoetara hurbiltzea.

- Auzoetan eta udal-webgunearen bitartez gazteek dituzten ekarpenak, kexak eta iradokizunak biltzea.

Gazteen 172 proposamen baino gehiago jaso ziren guztira eta oso modu positiboan baloratu zituzten gazteei zuzendutako programak eta udal-zerbitzuak. Halaber, hobekuntza hauek proposatu zituzten:

- Hirigunean gazteen aisialdirako estalitako espazioak behar dira.
- Kontzertu gehiago.
- Garraiorako eta alokairurako laguntzak.
- Ikastetxeetan sexualitatearekin eta eskola-jazarpenarekin zerikusia duen prestakuntza.

6.2.3. UDAL ZERBITZUAK

Koordinazioak egin dira eta prozesuan udaleko hainbat zerbitzuko hartu dute parte. Horien artean hauek daude:

- Hezkuntza.
- Herritarren partaidetza.
- Bizikidetza eta aniztasuna.
- Berdintasuna.
- Garapenean laguntza.
- Euskara.
- IGI.
- Espazio publikoa eta natur ingurunea.
- Gizarte-etxeak.
- Kultura.
- Herritarrei laguntza eta gardentasuna.
- Haurtzaro eta senitartea.
- Zabalgunea 21.
- Osasun publikoa.
- Ekonomia-sustapena, enplegua, merkataritza eta turismoa.
- Enpresak.
- Kirola.
- Udaltzaingoa.
- Gizarte politikak, adinekoak eta haurrak.



6.2.4. ERAKUNDEAK


Halaber, arreta berezia jarri da erakundeen arteko koordinazioan, beste erakunde batzuetatik kudeatzen diren gai asko daudelako.

- Ikaslan.
- Etxebide.
- Lanbide.
- Osakidetza.
- EHU.
- Eusko Zuzendaritza.
- Jaurlaritza.
- Gazteriaren

6.2.5. GAZTEEN ERAGILEAK

Azkenik, ahotsa eman zaie hiriko eragileei, eta horietako askori gonbita egin zaie. Hauen erantzunak jaso ditugu:

- EGK - Euskadiko Gazteriaren Kontseilua.
- Gurutze Gorria.
- Kolonbia Euskadi elkarte.
- RASD.
- Haaly Pular elkarte.
- Saharako irribarreak elikatuz.
- GEU Elkarte.
- Zabalgana batuz.
- Baratza aretoa.
- Jimmy Jazz.
- Asociación Cultural IN SITU Art Kultur Elkarte.
- Ludoland.
- Emaize.
- Ediren.
- Ipace.
- Apdema.
- Adsis fundazioa
- Irse Araba.
- Batekin.
- Orekabide.
- Aholkularitza juridiko gaztea.



6.3. LEHENENGO ZIRRIBORROA ETA KONTRASTE EGITEA

Parte-hartze prozesutik ateratako ekarpenak jaso ondoren, uztailean eta abuztuan lehen zirriborroa egin da. Parte-hartze prozesuan zehar proposatu diren ekintzei modu egituratuan lekua egitea da helburua.

192 proposamen jaso dira guztira, eta bi aldetatik landu dira (Gazteria Zerbitzuaren eta proposatu dituen erakundearen edo zerbitzuaren artean), ondo islatzeko eta helburuak zehazteko, baita proposamen bakoitzari esleitutako urteak eta aurrekontua zehazteko ere.

6.4. BEHIN BETIKO DOKUMENTUA EGITEA

Lehenengo zirriborroa egin ondoren, eraikitzeko prozesuan parte hartu dutenekin partekatu da, bere berri izateko eta ekintzak ondo jaso diren zehatzeko edo beharrezkoa izango balitz aldaketak iradokitzeko.

Ekintza horren ostean, Gazteria Zerbitzuko talde teknikoak behin betiko forma eman dio Udaleko Bosgarren Gazte Planari, zeinak 69 ekintza jasotzen baititu erabat garatzeko.

Ekintza horiek urtebeteko, bi urteko, edo hiru urteko iraupena dute, bakoitzaren ezaugarrien eta helburuen arabera.

Planean ageri diren ekintzen kopurua jasotako proposamenena baino txikiagoa izatea bi arrazoiren ondorioz da nagusiki. Alde batetik, proposamenetako batzuk oso zailak ziren gauzatzeko (aurrekontuarengatik, gaitasun faltagatik...). Bestalde, elkarren artean lotura zuten jasotako proposamen batzuk elkartu egin dira, eta, ondorioz, ekintzaren edukiak bi proposamen edo gehiago biltzen ditu.

6.5. DOKUMENTUA BALIOZKOTZEA

Alde batetik, dagoeneko behin betiko dokumentua eginda, Gazteriaren Elkargunerekin bilera egin zen azaroan dokumentua partekatu eta baliozkotzeko.


Gero, udaleko beste sailei eta Batzorde Politikoari aurkeztu zitzaizen, ontzat emateko. Azkenik, Gobernu Batzordera eraman da, onartzeko.

Prozesu horren ondotik, maketatu eta argitaratu egin da.



PLANAREN EGITURA

007



Datozen urteetarako ekintza-plana, honela egituratzen da, prozesuan landutako guztiarekin:

- Jarduketa-arloa:
 - o Datu batzuk.
 - o Abian dauden udal-jarduketak.
 - o Helburuak.
 - o Lan-ildoak:
 - Ekintzak.

Jarraian, egin beharreko ekintzak zehaztuko ditugu: izena, lotutako xedea, laburpena, inplikaturako zerbitzua edo zerbitzuak eta Plana indarrean dagoen bitarterako denboraren eta aurrekontuaren banaketa.

Planean jasotako ekintzak gazteei bideratutako proposamen berriak edo egun dagoeneko egiten diren ekintzak dira, baina gazteen errealitatera egokitzeko birdiseinatu egingo direnak. Atal honetako ekintzen taulan izartxoak agertzen denean, ekintzek ez dute aurrekonturik eta berezko baliabideekin egingo dira, bai Gazteria Zerbitzukoekin, bai esku hartzen duten beste sail eta zerbitzuetakoekin.

7.1. JARDUERAREN ARLOAK



EMANTZIPAZIOA

Emantzipazioa da gazteen bizi-proiektua oinarritzen den muinetako bat. Familiaren etxea utzi eta norbere etxea sortzea funtsezko urratsa da helduarora igarotzeko kronologian. Azken urteetan Euskadiko gazteen emantzipazio-tasa negatiboa izan da, egun % 15,5ekoa da soilik. Horren ondorioz, hori da Euskadiko Gazteriaren Legearen barruan lehentasunezko jarduketa-arloetako bat. Ildo horri jarraituz, Gazte Planaren xedea arlo horretan eragitea da, eta horretarako bai gazteentzat, bai gizarte osoaren jasangarritasunerako hain garrantzitsua den prozesua sustatzeko politika publikoak bultzatuko ditu.

DATU BATZUK:

Gasteizko gazteen errealitateari buruz Behatokiak⁴ egin dituen askotariko txostenetan jasotzen den moduan, gazteak izan dira pandemiaren eraginez suntsitutako enpleguak gehien kaltetu duen biztanleria-sektorea, eta haien lan-baldintzak kalitate eskasekoak izan ohi dira; behin-behinekotasun tasa altua, partzialtasuna, gehiegizko kualifikazioa eta soldata baxuak. Egoera ere islatuta dago Euskadiko Gazteria Kontseiluak (EGK) argitaratu duen "Kalitatezko enplegua"⁵ txostenean. Gure udalerrian enplegu bila dabiltzan gazteen kopurua 2.000 ingurukoa da.

Bai hezkuntza formala, bai ez formala eta enplegurako prestakuntza funtsezko tresnak dira gazteek beren potentzialtasuna garatzeko, etorkizunean bizi-baldintza duinak lortu ahal izateko eta gizartean modu aktiboan integratu ahal izateko.

Era berean, Gasteizko etxebizitzaren merkatua gazteen aukeren oso gaineratik dago; diru-sarreraren % 30 baino gehiago erabili behar dute etxebizitzarekin zerikusia duten gastuei aurre egiteko emantzipatu nahi baldin badute. Horrek esan nahi du gehiegizko zorpetzea ekiditeko ezarritako mugaren oso gaineratik daudela. Azken datuen arabera, Gasteizko gazte batek bere soldataren % 49,2 bideratu behar du alokairua librea ordaintzera. Halaber, babestutako alokairua da gazte gehienek emantzipatzeko duten aukera bakarra, gehiegizko zorpetzearen muga gainditu gabe.

Baldintza horien ondorioz, emantzipazio-prozesuak eten edo atzeratu egin dira, eta emantzipatzeko batezbesteko adinak igotzen jarraitzen du.

⁴ www.vitoria-gasteiz.org/juventud webgunean eskuragarri.

⁵ www.egk.eus webgunean eskuragarri.

ABIAN DAUDEN UDAL EKINTZAK

- Gazteak baldintza duinetan kontratatzeko udalerriko enpresentzako dirulaguntzak: gazteen kolektiboa da udalak kontratatzeko laguntzen ildoan argitaratzen dituen deialdietan lehenetsuneko kolektiboetako bat.
- Gazte kualifikatuentzako lan-esperientzia: Lanbiderekin batera, urtero bi plaza sustatzen ditugu gutxienez Gazteria Zerbitzuko teknikarientzat, kualifikatutako gazteek lan-esperientzia lor dezaten.
- Gizarte-bazterkeria egoeran dauden gazteentzako enplegu-prestakuntza-laguntza ibilbideak: enplegurako kualifikazio-ekintzak, orientazioa eta kualifikatu gabeko pertsonak lan-munduratzeko laguntza uztartzen dituzten programak dira. Eta, era berean, beren lehenengo lan-esperientzia sustatzen dute enpresetan, prestakuntza-praktiken bitartez.
- Udalerriko enplegurako enplegu- eta prestakuntza- baliabideen mapa: udalerriko enplegurako mapa eguneratuta mantentzea. Bai enplegurako baliabideak, bai enplegurako prestakuntzara bideratutakoak.
- Hazia 23 programa, 23 urte bitarteko gazteak gizarteratzeko eta lan-munduratzeko: lanean eta prestakuntzan inolako esperientziarik ez duten edo esperientzia eskasa duten gazteei bideratua. Sarean egiteko lan-proiektua da, hainbat erakunderekin egindako urteko lankidetzak-hitzarmenaren bitartez. Laguntza indibidualizatuaren eta funtsezkoaren bitartez prestakuntza kualifikatzaileetarako eta gaitasunak hobetzeko prestakuntzetarako sarbidea errazten zaie.
- GPS proiektua. Orientazio akademiko-profesionala berdintasunean: informazioa eta tresnak eskaintzen ditu eskola adin goiztiarretan uztea prebenitzeko, eta gazteen interesekin zein lan-merkatuaren bilakaerarekin bat datorren hezkuntzako ibilbidea eta ibilbide profesionala aukeratzeko.
- Gazteentzako etxebizitza-alokairuen programa: etxebizitzaren merkatuan sartu ezin duten 36 urtetik beherako pertsonen eskariei erantzuteko proiektua da, etxebizitza duina izateko beren beharrari erantzuteko.



HELBURUAK:

Arlo horretan helburu hauek jorratuko dira:

- 1.1- Enpleguarekin zerikusia duen informaziorako sarbidea ematea.
- 1.2.- Gazteei zuzendutako udal-enpleguaren tresnak hobetzea.
- 1.3.- Lan-munduan etikak eta balioek duten garrantziaren gainean kontzientziatzea.
- 1.4.- Gazteen kalitatezko enplegua babestea.
- 1.5.- Gazteen emantzipazio-tasa igotzea.
- 1.6.- Emakume gazteek etxebizitzari dagokienez duten desabantaila-egoera ikusaraztea.
- 1.7.- Kualifikazio ertaina/baxua duten gazteen gaitasun digitalen maila handitzea.
- 1.8.- Gazteek erabilgarriak diren eduki juridikoak ezagutu ditzaten sustatzea.

LAN ILDOAK:

1. EMPLEGUA

Enplegua gazteen emantzipazio-prozesuak oinarritzen diren funtsezko zutabeetako bat da, bai eta gizarte-bazterkeria ekiditeko moduetako bat ere.

Ekintza: 1.1.1.- Udalerriko enplegurako eta prestakuntzarako baliabideen mapa zabaltzea.

Helburua: 1.1- Enpleguarekin zerikusia duen informaziorako sarbidea ematea.

Udalerriko enplegurako baliabideen mapa eguneratua izatea. Bai enpleguarako baliabideak, bai enplegurako edo autoenplegurako prestakuntzara bideratutakoak. Halaber, gazteen artean eta gazteen bitartekarien artean zabaltzeko ahalegina egin behar da. Arduraduna: Ekonomia-sustapenaren, enpleguaren, merkataritzaren eta turismoaren saila Erantzunkidea: Gazteria zerbitzua	2023 2024 2025
	GAZTE PLANAREN AURREKONTUA
	* * *
	BESTE AURREKONTU BATZUK
	AURREKONTU OSOA
* * *	

Ekintza: 1.2.1.- “Lanbideen dastatzea” proiektu-pilotua.

Helburua: 1.2.- Gazteei zuzendutako udal-enpleguaren tresnak hobetzea.

Proiektu-pilotuaren xedea hainbat lanbidetara hurbiltzea da, beren interesetara gehien egokitzen den prestakuntza aukeratzeko, 23 urtetik beherako en gizarteratze-programaren barruan (Hazia 23).

Arduraduna: Ekonomia-sustapenaren, enpleguaren, merkataritzaren eta turismoaren saila

Erantzunkidea: Gazteria zerbitzua

2023	2024	2025
------	------	------

GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
----------------------------	--	--

BESTE AURREKONTU BATZUK		
-------------------------	--	--

5.000		
-------	--	--

AURREKONTU OSOA		
-----------------	--	--

5.000		
-------	--	--

Ekintza: 1.2.2.- GPS berrikuntza.

Helburua: 1.2.- Gazteei zuzendutako udal-enpleguaren tresnak hobetzea.

Jarduketa berriak egitea metodologia berritzaileekin, hala nola ihes-jokoak, ikasketak hautatzerako garaian dagoen arrakalaren eta lan-merkatuan generoek duten dualtasunaren gainean kontzientziazteko.

Arduraduna: Ekonomia-sustapenaren, enpleguaren, merkataritzaren eta turismoaren saila

Erantzunkidea: Gazteria zerbitzua

2023	2024	2025
------	------	------

GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
----------------------------	--	--

BESTE AURREKONTU BATZUK		
-------------------------	--	--

5.000		
-------	--	--

AURREKONTU OSOA		
-----------------	--	--

5.000		
-------	--	--

Ekintza: 1.3.1.- “Ekonomia sozialera hurbiltzen” tailerra.

Helburua: 1.3.- Lan-munduan etikak eta balioek duten garrantziaren gainean kontzientziatzea.

	2023	2024	2025
<p>Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleei zuzendutako tailerra da, eta erabakiak hartzeko garaian erantzukizun-tresnak aplikatzearen garrantziaz gogoeta egingo dute.</p> <p>Arduraduna: Ekonomia-sustapenaren, enpleguaren, merkataritzaren eta turismoaren saila Erantzunkidea: Gazteria zerbitzua</p>	GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
	BESTE AURREKONTU BATZUK		
	3.000		
	AURREKONTU OSOA		
	3.000		

Ekintza: 1.4.1.- Kualifikatutako gazteentzako lan-esperientzia.

Helburua: 1.4.- Gazteen kalitatezko enplegua babestea.

	2023	2024	2025
<p>Gazteria Zerbitzuaren barruan hainbat proiektu egitea, kalitatezko enpleguaren lehen esperientziak lortzeko (deialdiaren arabera baldintzatuko da).</p> <p>Arduraduna: Ekonomia-sustapenaren, enpleguaren, merkataritzaren eta turismoaren saila Erantzunkidea: Gazteria zerbitzua</p>	GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
	BESTE AURREKONTU BATZUK		
	54.500	123.000	123.000
	AURREKONTU OSOA		
	54.500	123.000	123.000

2. ETXEBIZITZA

Gazteentzat etxebizitza lortzea gakoa da bizi-proiektu independenteak izateko, beren pluraltasuna eta beharren dibertsitatea kontuan hartuta.

Ekintza: 1.5.1.- Gazteen Emantzipaziorako Euskal Sarean integratzea.

Helburua: 1.5.- Gazteen emantzipazio-tasa igotzea.

<p>Gasteizko Udala gazteen emantzipazioa sustatzeko sarean sartzea, jardueren eta informazio-zerbitzuen, dokumentazioaren, orientazioaren eta emantzipaziorako laguntzaren bitartez.</p> <p>Arduraduna: Gazteria zerbitzua</p>	2023	2024	2025
	GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
	*	*	*
	BESTE AURREKONTU BATZUK		
	AURREKONTU OSOA		
	*	*	*

Ekintza: 1.5.2.- Etxebizitzaren arloan gazteentzat dauden baliabideak hedatzea.

Helburua: 1.5.- Gazteen emantzipazio-tasa igotzea.

<p>Gazteentzako etxebizitzarekin zerikusia duten programak, zerbitzuak eta baliabideak zabaltzea.</p> <p>Arduraduna: Gazteria zerbitzua</p>	2023	2024	2025
	GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
	*	*	*
	BESTE AURREKONTU BATZUK		
	AURREKONTU OSOA		
	*	*	*

Ekintza: 1.5.3.- Etxebizitzak eraikitzeako udal-partzelen salmentan gazteentzako klausulak.

Helburua: 1.5.- Gazteen emantzipazio-tasa igotzea.

Gazteentzako onuragarriak diren klausulak txertatzea Zabalgune sozietateak egiten dituen partzelak besterentzeko prozesuetan, etxebizitza babestuak eta alokairukoak eraikitzeko.

Arduraduna: Zabalgunea 21
Erantzunkidea: Gazteria zerbitzua

2023	2024	2025
------	------	------

GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
----------------------------	--	--

BESTE AURREKONTU BATZUK		
-------------------------	--	--

*	*	*
---	---	---

AURREKONTU OSOA		
-----------------	--	--

*	*	*
---	---	---

Ekintza: 1.6.1.- Genero-arrakala emantzipazioan.

Helburua: 1.6.- Emakume gazteek etxebizitzari dagokienez duten desabantaila-egoera ikusaraztea.

Etxebizitza lortzeko garaian emakumeen eta gizonen artean dagoen desberdintasuna agerian uzteko sentsibilizazio-ekintza.

Arduraduna: Gazteria zerbitzua

2023	2024	2025
------	------	------

GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
----------------------------	--	--

800		
-----	--	--

BESTE AURREKONTU BATZUK		
-------------------------	--	--

AURREKONTU OSOA		
-----------------	--	--

800		
-----	--	--

3. HEZKUNTZA FORMALA ETA EZ-FORMALA

Hezkuntza formala eta ez formala eta enplegurako prestakuntza funtsezko tresnak dira gazteen enplegagarritasuna areagotzeko garaian, eta horrek emantzipatzeko aukerak handitzen ditu.

Ekintza: 1.7.1.- Enplegurako tailerrak eta alfabetizazio digitalaren moduluak.

Helburua: 1.7.- Kualifikazio ertaina/baxua duten gazteen gaitasun digitalen maila handitzea.

Gaitasun digitalak hobetzeko aurrez aurreko prestakuntza eta modularra, pertsonalizatutako ibilbideekin.	2023	2024	2025
	GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
	3.000	3.000	3.000
Arduraduna: Ekonomia-sustapenaren, enpleguaren, merkataritzaren eta turismoaren saila	BESTE AURREKONTU BATZUK		
Erantzunkidea: Gazteria zerbitzua	4.500	4.500	4.500
AURREKONTU OSOA			
	7.500	7.500	7.500

Ekintza: 1.8.1.- Gazteentzako oinarrizko lege-hezkuntzari buruzko hitzaldiak.

Helburua: 1.8.- Gazteek erabilgarriak diren eduki juridikoak ezagutu ditzaten sustatzea.

Esperientzia pilotu gisa abokatutzako profesionalek hitzaldiak ematea lan-eskubideari, eskubide fiskalari, administratiboari, zigor-eskubideari, kontsumo-eskubideari eta etxebizitza-eskubideari buruz, gazteek gaiaren gaineko funtsezko ezagutzak jaso ditzaten.	2023	2024	2025
	GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
		500	
BESTE AURREKONTU BATZUK			
Arduraduna: Gazteria zerbitzua			
AURREKONTU OSOA			
		500	

EKITATEA

XXI. mendeko gazteen ezaugarria heterogeneotasuna da. Alde batetik, gazteen adin-tarte handiarengatik (14-30) eta, bestetik, laneko egoerak, egoera ekonomikoak, familiakoak eta jatorriak are gehiago markatzen dituzte desberdintasunak gazteen kolektibo osoaren barruan. Desabantaila-egoerak murriztea eta aukeraberdintasuna ahalbidetzeko baliabideak sustatzea da egungo erronka handia.

DATU BATZUK:

- Gasteizko gazteen biztanleria (12-35) biztanleria osoaren % 23,57 da.
- Biztanleria gazte horren laurden bat (ia 60.000) atzerritarra da.
- Emakumeen biztanleria gizonena baino altuagoa da termino absolutuetan, baina ehunekoetan ez dago ia alderik; biak % 50etik gertu daude.
- Euskadiko gazteen erdia hirueleduna da: hirueledunen Euskadiko tasa euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez ondo hitz egiten duten gazteen ehunekoetik abiatuta kalkulatzen da. Adierazle horrek gero eta balio altuagoak ditu, ingelesaren ezagutza nabarmen igo delako. 2019an, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 49,3k adierazi du euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez ondo hitz egiten duela; 2004an erregistratutako zifra baino 30 puntu altuagoa.
- Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 83,4 nahiko edo oso feminista sentitzen da. Ehuneko hori % 90,4koa da emakume gazteen eta gizonen artean eta % 76,8koa gizon gazteen artean. 20 eta 24 bosturteko talde hori da feministen sentitzen dena (% 86,5).



- 15 eta 29 urte arteko Euskadiko lau pertsonatik bat nahiko edo oso gogoz kontra sentitzen da bestelako ideiak, sinesmenak eta balioak dituztenekin (% 24,9). Datu hori igo egin da 2016an (% 16,6) eta 2020an (% 24,9) beste modu batera pentsatzen dutenekin gogoz kontra sentitzen direla dioten emakumeen ehunekoa bikoiztu egin delako (2016an % 14,2 izatetik 2020an % 30,3 izatera). Hala ere, esan behar da ehunekoa emakumeen artean soilik igo izana lotuta egon daitekeela jarrera edo balio matxistak lehen baino gutxiago tolerantzearekin.

- Immigranteen arbuioa murriztu egin da: 2004tik 2012ra igo egin zen gazteen artean (eta Euskadiko gainerako biztanleriaren artean) Euskadin atzerritar gehiegi zeuden ustea. Orduetik, beherakada oso nabarmena izan da; 2020an % 9,1era iritsi da, 2012an % 44,60koa izanik.

- Udaleko gizarte-zerbitzuetan artatu dituzten 18 eta 30 urte arteko emakumeen kopurua 150ekoa zen 2019an, 103koa 2020an eta 101ekoa 2021ean, bai genero-indarkeriarengatik, bai etxeko indarkeriarengatik.

- Bizi duten indarkeria-egoeratik ateratzea erabakitzen duten emakumeen batezbesteko adinak beheranzko joera du: 18-30 urteko tartean, 2009an 67 emakume izan ziren eta 2020an, 34 (ia % 50 emakume gutxiago).

- Erasotzaileak (Udaltzaingoak jasotako datuak): 2019an genero-indarkeriaren delituengatik ikertu edo atxilotu dituzten 18 eta 30 urte arteko gizonen kopurua 44 izan da, 2020an, 43 eta 2021ean, 37. Horrenbestez, % 13,95 jaitsi da portzentajea.

- Haur edo nerabe biktimak: 2020an, 18 urtetik beherako 13 adingabe artatu ziren eta 2021ean 9. Ez dago adinaren arabera bereizitako daturik.

ABIAN DAUDEN UDAL-JARDUERAK

Ekitatea ardatz nagusi duten jarduera asko daude, beraz, garrantzitsuenak azpimarratuko ditugu.

- **Indarkeria matxista prebenitzeko udal-estrategia. "Libre Izan Nonahi"** eta ahalduntze feministarako eskola:

Indarkeria matxistak prebenitzeko 12 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, eta indarkeria matxistaren sostengu diren balioen eta sinesmenen sisteman eragingo duten ekintzak planteatzen ditu:

- Indarkeria matxisten inguruko prebentzio- eta sentsibilizazio-tailerrak.

- Egun seinalatueterako prebentzio- eta sentsibilizazio-



dispositiboa (batez ere Andre Mari Zuriaren jaietan). Gazteei indarkeria matxista identifikatzen, ez erabiltzen eta prebenitzen laguntzeko mezuak nabarmendu eta indarkeriaren aurrean jarrera aktiboa izatea sustatzen du.

- Autodefentsa feminista tailerrak.

- Autodefentsa feministaren talde iraunkorra.

- Ahalduz feministaren eskolarako konferentziak eta tailerrak.

- #Feminismoanltzel eskolaren ekintza da, interseksionalitatean arreta jartzen du eta xedeetako bat generoaren sozializazioaren errealitatea aldatzea da: bi urterekin, haurrak dagoeneko gai dira genero-rolak eta -estereotipoak identifikatzeko, eta, jasotako heziketaren arabera, agindu horien arabera jokatzeko.

- Zurrumurruen aurkako estrategia: udalerriko biztanleei zuzendutako sentsibilizazio-tailerrak eta -kanpainak dira, pentsamendu kritikoa sustatzeko eta estereotipoek, aurreiritziak eta zurrumuru faltsuek bizikidetzan dituzten eragin negatiboak gainean sentsibilizatzeko.

- Hiruren arteko bideoforuma: hainbat arlori lotutako eztabaida sortzen duten filmak ematen diren programa da, besteak beste, feminismoari eta dibertsitateari buruzkoa.

- Afrikaren astea: Afrikako kulturari eskainitako astea da, beren errealitatea gure udalerrira hurbiltzeko modu ludikoan. Gazte asko dituzten hainbat elkarterek hartzen dute parte talde eragilean.

- Oporretako programa: Oporretako jardueretan plazen % 4 eta % 5 artean hezkuntzako behar bereziak dituzten haurrentzako gordetzen dira, eta kopuru berbera gordetzen da behar soziala duten edo indarkeria matxista pairatzen duten haurrentzat.

- Beste jarduera batzuk: Gazteria Zerbitzuak eskaintzen dituen jardueren artean, 16 eta 30 urte arteko gazteentzako doako aisialdi-programak daude (Gauekoak) eta gainerako aisialdiko eta denbora libreko programetan doako plazak gordetzen dira zaugarritasun-egoeran dauden gazteentzat.

HELBURUAK:

Arlo horretan helburu hauek jorratuko dira:

- 2.1.- Memoria historikoa ezagutzeak bakearekin eta giza eskubideekin dagoen konpromisoa finkatzeko ekarpena egiten duela sustatzea, bai eta ez errepikatzeko bermeak ezartzen dituela ere.
- 2.2.- Askotariko norbanakoen eta kolektiboen interakzio positiboa sustatzea, berdintasun- eta errespetu-giroan, eta komunean duten nabarmentzea.
- 2.3.- Udal-baliabideetara sartzeko berdintasunaren alde jardutea.
- 2.4.- Gasteizko gazteek erlazio libreak, errespetuzkoak, parekideak, askotarikoa eta ez matxistak eraiki ditzaten sustatzea, banakako tresnak eta kolektiboak eskuratuz.
- 2.5.- Udaleko Gazte Informazio Bulegoaren berri eta bere zerbitzuen berri ematea Gasteizko gazteei.
- 2.6.- Gazteriaren sare sozialen irismena eta interakzioa hobetzea.

1. BAKERAKO HEZKUNTZA

Zentzu zabalean, bakerako hezkuntza da giza baliabideak errespetatzen dituen balioak eta indarkeriarik gabeko balioak dituen gizartea eraikitzeke oinarria.

Ekintza: 2.1.1.- Leku adierazgarrietara bisita gidatuak.

Helburua: 2.1.- Memoria historikoa ezagutzeak bakearekin eta giza eskubideekin dagoen konpromisoa finkatzeko ekarpena egiten duela sustatzea, bai eta ez errepikatzeko bermeak ezartzen dituela ere

	2023	2024	2025
Modu ludiko eta informalean historia transmititzeko bisitak egitea, eta enpatiatik bakearen, dibertsitatearen eta elkartasunaren konpromisora bideratzea. Arduraduna: Gazteria zerbitzua Erantzunkidea: Bizikidetza eta aniztasunaren zerbitzua	GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
		1.000	
	BESTE AURREKONTU BATZUK		
		1.000	
	AURREKONTU OSOA		
		2.000	

2. DIALOGOAREN KULTURA

Garrantzitsua da gure mundu-ikuspegia modu baketsuan transmititzeko eta besteek esaten dutena arretaz entzuteko gai izatea. Ikaskuntza ez da indibiduala, soziala baizik, eta pertsonen arteko erlazioak dira ikaskuntzaren oinarria. Desberdintasuna aberasgarria da eta ez da inoiz banatzen duen barrera izan behar.

Ekintza: 2.2.1.- “Kuadrilla abegitsuak” programa.

Helburua: 2.2.- Askotariko norbanakoen eta kolektiboen interakzio positiboa sustatzea, berdintasun- eta errespetu-giroan, eta komunean duten nabarmentzea.

<p>Gazteen kuadrillak hirira iritsi berri diren adin antzeko gazteekin harremanetan jartzea, errefuxiatuekin eta immigranteekin lan egiten duten erakundeekin egindako lankidetzahitzarmenaren bitartez.</p> <p>Arduraduna: Gazteria zerbitzua Erantzunkidea: Bizikidetzeta eta aniztasunaren zerbitzua</p>	2023	2024	2025
	GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
			1.000
	BESTE AURREKONTU BATZUK		
			3.000
	AURREKONTU OSOA		
		4.000	

Ekintza: 2.3.1.- Sailen arteko batzorde teknikoaren eratzea.

Helburua: 2.3.- Udal-baliabideetara sartzeko berdintasunaren alde jardutea.

<p>Batzorde horretan udal-zerbitzuetatik antolatutako jarduerak dituzten tasak, prezioak eta hobariak aztertuko dituzte, gazteen sarbideberdintasuna sustatzeko.</p> <p>Arduraduna: Gazteria zerbitzua Erantzunkidea: Gizarte politiken, adinekoen eta haurren saila, Bizikidetzeta eta aniztasunaren zerbitzua</p>	2023	2024	2025
	GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
	*		
	BESTE AURREKONTU BATZUK		
	AURREKONTU OSOA		
*			

3. INDARKERIA METXISTAREN PREBENTZIOA

Indarkeria oso termino zabala da, eta bertan puntualizazio ugari egin daitezke gauzatzen duen eta pairatzen duen pertsonaren arabera. Gazte Plan honetan landuko ditugun indarkeria nagusiak emakumeen aurkako indarkeria, familia barrukoa, jarrera xenofoboak, LGTBI+ kolektiboaren aurkako arbuia eta sare sozialen bidezko indarkeria dira.

Ekintza: 2.4.1.- #Feminismoantzel.

Helburua: 2.4.- Gasteizko gazteek erlazio libreak, errespetuzkoak, parekideak, askotarikoa eta ez matxistak eraiki ditzaten sustatzea, banakako tresnak eta kolektiboak eskuratuz.

Gazteei zuzendutako jarduerak, genero-sozializazioaren arloa aldatzeko, eta erasoen eta indarkeria matxistaren balizko egoerak identifikatu eta defendatzeko.

Arduraduna: Berdintasun zerbitzua
Erantzunkidea: Gazteria zerbitzua

2023	2024	2025
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
*	*	*
BESTE AURREKONTU BATZUK		
10.000	10.000	10.000
AURREKONTU OSOA		
10.000	10.000	10.000

Ekintza: 2.4.2.- Neskentzako autodefentsa feminista tailerrak.

Helburua: 2.4.- Gasteizko gazteek erlazio libreak, errespetuzkoak, parekideak, askotarikoa eta ez matxistak eraiki ditzaten sustatzea, banakako tresnak eta kolektiboak eskuratuz.

Neska gazteek sentimenduak adierazi eta defendatzeko, babesteko, zaintzeko eta maitatzeko estrategiak bilatuko dituzte. Desberdintasun-egoerak aztertuko dira, indarkeria nondik sortzen den ulertzeko eta aurre egiteko teknika emozionalak, fisikoak eta kognitiboak lantzeko.

Arduraduna: Berdintasun zerbitzua
Erantzunkidea: Gazteria zerbitzua

2023	2024	2025
------	------	------

GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
----------------------------	--	--


1.000	1.000	1.000
-------	-------	-------

BESTE AURREKONTU BATZUK		
-------------------------	--	--

3.000	3.000	3.000
-------	-------	-------

AURREKONTU OSOA		
-----------------	--	--

4.000	4.000	4.000
-------	-------	-------



4. INFORMAZIORAKO SARBIDEA

Gazteria Legeak gazteek informaziorako sarbidea dutela adierazten du. Informaziorako sarbideak bere interesak garatzeko tresnak ematen dizkie pertsoneri, arloa edozein izanik ere. Informaziorako sarbidea desberdintasunaren aurka egiteko tresna ere bada. Gazteria Zerbitzuak presente du bere horretan ildo hori lantzeko garrantzia.

Ekintza: 2.5.1.- Udaleko Gazteen Informazio Bulegoa zabalitzeko kanpaina.

Helburua: 2.5.- Udaleko Gazteen Informazio Bulegoaren eta bere zerbitzuen berri ematea Gasteizko gazteei.

Udaleko Gazteen Informazio Bulegoaren zerbitzuak eta baliabideak zabaltzea Gasteizko gazteen artean, bai eta bulegoarekin harremanetan jartzeko moduak ere, izan aurrez aurre edo online.

Arduraduna: Gazteria zerbitzua

2023 | 2024 | 2025

GAZTE PLANAREN AURREKONTUA

* | * | *

BESTE AURREKONTU BATZUK

AURREKONTU OSOA

* | * | *



Ekintza: 2.5.2.- Whatsapp bidezko arreta sustatzea.

Helburua: 2.5.- Udaleko Gazteen Informazio Bulegoaren eta horren zerbitzuen berri ematea Gasteizko gazteei.

Gazteentzat oso ezaguna den aplikazioaren bitartez egindako arreta zabaltzea eta aldizka gogoraraztea. Arduraduna: Gazteria zerbitzua	2023 2024 2025
	GAZTE PLANAREN AURREKONTUA
	* * *
	BESTE AURREKONTU BATZUK
	AURREKONTU OSOA
	* * *

Ekintza: 2.6.1.- Gazteriaren sare sozialen estrategia berria.

Helburua: 2.6.- Gazteriaren sare sozialen irismena eta interakzioa hobetzea.

Estrategia berria ezarri eta jarraipena egitea: bideo informatiboak egitea, zozketak... Arduraduna: Gazteria zerbitzua	2023 2024 2025
	GAZTE PLANAREN AURREKONTUA
	* * *
	BESTE AURREKONTU BATZUK
	AURREKONTU OSOA
	* * *

OSASUNA

Osasuna funtsezkoa da gazteen garapenerako. Gazteriaren Euskal Legeak hala aitortzen du, eta ezartzen du administrazio publikoek gazteen osasuna babestu eta sustatu behar dutela, osasun sexualarekin eta erreproduktiboarekin, buruko osasunarekin edo bizitzako eredu eta ohitura osasungarrien sustapenarekin zerikusia duten alderdiak barne. Agindu hori jarraituz, Gazte Planarentzat lehentasunezkoa da osasun-arloa modu integral eta bateratuan lantzea, arlo horretan jarduten duten beste eragileekin batera.

DATU BATZUK:

Gazteentzako sexualitateari buruzko aholkularitza-zerbitzuak, Asexoria, 25 urte daramatza funtzionamenduan, eta gure hiriko gazteen arlo horretako errealitatearen behatokia da. Gazteentzat erreferentea da gaur egun ere informazio fidagarria eta aholkularitza profesionala bilatzeko garaian. Horrelako zerbitzuen beharra berretsi egiten dute urtez urte erregistratzen diren erabileraren maila altuek.

“Gasteizko gazteen buruko osasun-egoerari buruzko azterketa-diagnostikoa” lanaren arabera, inkesta egindako gazteen heren batek adierazi du bere buru-osasuna kaltetu egin duela COVID-19ren pandemiak. Txosten horretan bertan kezka, estresa eta antsietate-sintomak dituen kolektibo handia deskribatzen da. Gazteen artean pandemiarekin lotuta dauden sentimendurik orokortuenak tristura eta ulertezintasuna dira, eta hein txikiagoan, lo egiteko zailtasunak eta/edo kontzentratzekoak eta haserrea edo frustrazioa. Halaber, bakardade-sentsazioa ere adierazi dute.

Gazteentzako aholkularitza psikologikoaren zerbitzuaren, Psikoaholkularitza, erabilera-datuak kontuan izanik, egiaztatu dezakegu zerbitzu-mota horien eskaria etengabe igo dela azken urteotan Gasteizko gazteen artean, eta are gehiago azkartu da pandemiak gazteengan izan dituen ondorioengatik.

Kirol-jarduera gisako ohitura osasungarriez hitz egiten badugu, datuei erreparatu behar diegu: adin jakin batzuetatik aurrera, gazteek eta batez ere emakume gazteek jardueramota hori alde batera uzten dute, hau da, kirolak fisikoki eta mentalki dituen onurak aprobetxatzeari uzten diote. Joera hori areagotu egin da pandemiarekin lotuta izan ditugun murrizketengatik.

Gasteizen mendekotasunak eta antzeko jokabideen nahasmenduak murrizteko IV. Planaren diagnostikoaren arabera, gazteen taldean (15-34 urte) biltzen da alkohola edaten dutenen kopuru handiena, eta asteburuetako kontsumo-kopuru handiena (gehiegizko edo arriskuko edaleak % 23 dira kolektibo horretan). Kalamuaren kontsumoa ere askoz gehiago ematen da gazteen artean gainerako adin-taldeetan baino.

ABIAN DAUDEN UDAL-EKINTZAK

- Gazteentzako sexualitateari buruzko aholkularitza, Asexoria: udal-zerbitzu konfidentziala, doakoa eta gazteei zuzendutakoa da. Sexologiako profesionalak orientazioa eta laguntza eskaintzen dute zalantzak argitzeko eta sexualitateari buruzko informazio kontrastatua bilatzeko. Eragileekin ere jarduten du eta hitzaldiak ematen ditu ikastetxeetan.
- Psikoaholkularitza aholkularitza psikologikoa: gazteentzako udal-zerbitzu konfidentziala eta doakoa da, psikologiako profesionalak eskaintzen dute eta hitzordua eskatuta aurrez aurre zein telefono edo posta elektronikoko bitartez eskaintzen dute arreta. Gazteekin lan egiteaz gain, zerbitzu horrek gazteen eragileekin ere jarduten du eta ikastetxeetan hitzaldiak ematen ditu.
- Kirol bidean: 12 eta 30 urte bitarteko gazteen artean kirol-jarduera sustatzeko kanpaina da, eta hasierako mailan hainbat kirol-modalitate ezagutzeko aukera ematen du, banaka edo taldean.
- Lonjetan esku-hartzeko programa: gazteak biltzen diren aisialdirako espazio alternatiboetara bisitak egiten dira, kontsumo arriskutsuak prebenitzeko, informazioaren, substantzien analisiaren eta material informatibo eta prebentiboaren bitartez.
- Espazio publikoan alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoa prebenitzeko programa: gazteek bide publikoan alkohola kontsumitzen dutenean egiteko esku-hartzeak. Prebentzioaren arloko profesionalen talde bat gazteak biltzen diren leku horietara joaten da, jaiegunetan eta modu ibiltarian, eta alkoholaren eta drogen kontsumoari buruzko material informatiboa eta sentsibilizaziokoak banatzen dute.

HELBURUAK:

Arlo horretan helburu hauek jorratuko dira:

- 3.1.- Gasteizko familietan gurasotasun positiboa eta atxikimendu segurua sustatzea.
- 3.2.- Gasteizko gazteen ongizate emozionala hobetzea.
- 3.3.- Gazteekin lan egiten duten profesionalak taldeen kudeaketa emozionalerako prestatzea.
- 3.4.- Gorputzen dibertsitatearen balioa sustatzea.
- 3.5.- Gazte zaugarrien gizartean erabateko gizarteratzea lortzea.
- 3.6.- Gazteek heziketa afektibo-sexuala izatea lortzea.
- 3.7.- Gazteentzako aholkularitza-zerbitzuak zabaltzea.
- 3.8.- Gazteen artean sexu- eta erreprodukzio-eskubideak ikusaraztea.
- 3.9.- Erlazio sexu-afektiboen gainean modu erakargarrian gogoeta egitea.
- 3.10.- Nerabeen artean elikadura portaeraren nahasmenduak prebenitzea.
- 3.11.- Gazteen kirol-jarduerari buruzko beharrezko informazioa eta ezagutza izatea.

1. BURUKO OSASUNA: EMOZIOEN PEDAGOGIA

Gazteen buruko osasuna da modu osasungarrian eta erabat garatzea ahalbidetzen dien ongizate emozionala.

Ekintza: 3.1.1.- 14 eta 30 urte arteko gazteen gurasoei eta legeko tutoreei laguntzeko zerbitzua eta monitoretza.

Helburua: 3.1.- Gasteizko familietan gurasotasun positiboa eta atxikimendu segurua sustatzea.

Gazteentzako laguntza-zerbitzua, prebentzio-aholkularitza eta buruko osasunaren sustapena, zaintzeko eta hazteko rolak dituzten helduekin egindako esku-hartzeen bitartez.

Arduraduna: Osasun publikoaren zerbitzua
Erantzunkidea: Gazteria zerbitzua

2023	2024	2025
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
BESTE AURREKONTU BATZUK		
4.900		
AURREKONTU OSOA		
4.900		

Ekintza: 3.1.2.- Nerabezaroaren erronkei aurre egiteko gurasoei/legezko tutoreei zuzendutako hitzaldiak.

Helburua: 3.1.- Gasteizko familietan gurasotasun positiboa eta atxikimendu segurua sustatzea.

	2023	2024	2025
<p>Gizarte-etxeetan egiteko hitzaldiak, hainbat gai lantzeko: ongizate emozionala, teknologia berriak, autoestimua, mendekotasunen prebentzioa, etab.</p> <p>Arduraduna: Osasun publikoaren zerbitzua Erantzunkidea: Gazteria zerbitzua</p>	GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
	BESTE AURREKONTU BATZUK		
		700	
	AURREKONTU OSOA		
		700	

Ekintza: 3.2.1.- Emozioen pedagogiari buruzko talde-saioak.

Helburua: 3.2.- Gasteizko gazteen ongizate emozionala hobetzea.

	2023	2024	2025
<p>Psikologiako profesionalek gidatzen dituzten gazteei zuzendutako taldeko tailerrak dira eta gazteen buruko osasunari eragiten dieten hainbat gai jorratzen dituzte, baita erronka horiei aurre egiteko teknikak ere.</p> <p>Arduraduna: Gazteria zerbitzua</p>	GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
	2.500		
	BESTE AURREKONTU BATZUK		
	AURREKONTU OSOA		
	2.500		

Ekintza: 3.3.1.- Irakasleentzako eta gazteekin lan egiten duten profesionalentzako dinamikaren formazioa.

Helburua: 3.3.- Gazteekin lan egiten duten profesionalak taldeen kudeaketa emozionalerako prestatzea.

<p>Nerabeen prozesua lantzeko eta gazteen taldeak eta horietan ematen diren dinamikak hobeto kudeatzen ikasteko taldeko esku-hartzea.</p> <p>Arduraduna: Gazteria zerbitzua</p>	2023	2024	2025
	GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
			2.500
	BESTE AURREKONTU BATZUK		
	AURREKONTU OSOA		
			2.500

Ekintza: 3.4.1.- “Naizen moduan maite dut nire burua” sareetako kanpaina.

Helburua: 3.4.- Gorputzen dibertsitatearen balioa sustatzea.

<p>Gazteriaren sare sozialak erabiltzea gorputzen aberastasuna sustatzen duen kanpainarako, eta gazteak edertasun-kanonetik harago doazen gorputzen dibertsitatea erakustera animatzeko.</p> <p>Arduraduna: Gazteria zerbitzua</p>	2023	2024	2025
	GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
			1.500
	BESTE AURREKONTU BATZUK		
	AURREKONTU OSOA		
			1.500

Ekintza: 3.5.1.- Jarduera soziokultural eta dinamiko askotarikoak dituen tailer inklusiboa.

Helburua: 3.5.- Gazte zaugarrien gizartean erabateko gizarteratzea lortzea.

Zaugarritasun-egoeran dauden eta ez dauden gazteen artean jarduera soziokulturalak egitea, hainbat dinamika erabiliz, hala nola musika, jarduera sortzaileak edo meditazioa. Ingurune osasungarriak sortzea da xedea, gazteak ahalik eta ondoen garatu daitezzen ingurune emozional eta fisiko osasuntsuan.

Arduraduna: Gazteria zerbitzua

2023	2024	2025
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
1.800		
BESTE AURREKONTU BATZUK		
AURREKONTU OSOA		
1.800		



2. HEZKUNTZA AFEKTIBO SEXUALA

Gazteen hezkuntza sexu-afektiboa ongizate sexuala lortzeko bidea da, errespetuan, babesean eta sexu- eta erreproduktzio-eskubideen sustapenean oinarrituta, sexu-aniztasuna kontuan izanda.

Ekintza: 3.6.1.- Sexu-transmisio bidezko gaixotasunen sentsibilizazioa eta prebentzioa.

Helburua: 3.6.- Gazteek heziketa afektibo-sexuala izatea lortzea.

<p>Barrera-metodirik gabe sexu-harremanak izateak osasunerako dituen arriskuez sentsibilizatzeko saioak.</p> <p>Arduraduna: Osasun publikoaren zerbitzua Erantzunkidea: Gazteria zerbitzua</p>	2023	2024	2025
	GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
	BESTE AURREKONTU BATZUK		
	200		200
	AURREKONTU OSOA		
200		200	

Ekintza: 3.7.1.- Gazteen aholkularitzei buruzko publizitate-kanpaina.

Helburua: 3.7.- Gazteentzako aholkularitza-zerbitzuak zabaltzea.

<p>Gazteentzako aholkularitzen irudia berritzeko eta hartzaileen artean baliabide horiek daudela ezagutarazteko hedapen-kanpaina.</p> <p>Arduraduna: Gazteria zerbitzua</p>	2023	2024	2025
	GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
	8.500		
	BESTE AURREKONTU BATZUK		
	AURREKONTU OSOA		
	8.500		

Ekintza: 3.8.1.- Sexu- eta erreprodukzio-eskubideen kanpaina.

Helburua: 3.8.- Gazteen artean sexu- eta erreprodukzio-eskubideak ikusaraztea.

Sexualitatearen ganean erabakitze eta modu librean praktikatzeko askatasunaren gaia gazteekin lantzeko talde-dinamika. Gazteen heziketa sexu-afektiboa indartzen du eta sexualitatearen erantzukizun osoa, librea eta informatua gauzatzea nabarmentzen du.

Arduraduna: Gazteria zerbitzua

2023	2024	2025
------	------	------

GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
----------------------------	--	--

		15.000
--	--	--------

BESTE AURREKONTU BATZUK		
-------------------------	--	--

AURREKONTU OSOA		
-----------------	--	--

		15.000
--	--	--------

Ekintza: 3.9.1.- Sexu-errealitateetan murgiltzea.

Helburua: 3.9.- Erlazio sexu-afektiboen ganean modu erakargarrian gogoeta egitea.

Gazteentzako metodologia erakargarriaren bitartez neska-mutilak indarkeria matxistaren ganean sentsibilizatzea, 12-14 eta 15-18 urteko gazteentzako tailer bereziekin.

Arduraduna: Gazteria zerbitzua

2023	2024	2025
------	------	------

GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
----------------------------	--	--

		200
--	--	-----

BESTE AURREKONTU BATZUK		
-------------------------	--	--

AURREKONTU OSOA		
-----------------	--	--

		200
--	--	-----

Ekintza: 3.9.2.- Sexu- eta genero-dibertsitateari buruzko adierazpen artistikoa.

Helburua: 3.9.- Erlazio sexu-afektiboen gainean modu erakargarrian gogoeta egitea.

<p>Jatorri askotariko gazteekin obra artistiko kolektiboa egitea, sexu- eta genero-dibertsitatea islatzeko. Egin beharreko lana prozesu parte-hartzailearen emaitza izango da, eta sexu-dibertsitateen gainean gogoeta egingo da, sustatu beharreko balio gisa.</p> <p>Arduraduna: Gazteria zerbitzua</p>	2023	2024	2025
	GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
			5.000
	BESTE AURREKONTU BATZUK		
	AURREKONTU OSOA		
		5.000	

Ekintza: 3.9.3.- Ligoteo jatorra tailerra.

Helburua: 3.9.- Erlazio sexu-afektiboen gainean modu erakargarrian gogoeta egitea.

<p>Ligoteo jatorra gisako tailerrak sortzea, jendea off line ezagutzeko topagunea izateko, eta espazio analogikoetan gaitasun sozialak hobetzeko, hala nola errespetutik eta berdintasunetik egindako hitzezkoa ez den komunikazioa.</p> <p>Arduraduna: Gazteria zerbitzua</p>	2023	2024	2025
	GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
			3.000
	BESTE AURREKONTU BATZUK		
	AURREKONTU OSOA		
		3.000	



3. BIZITZA OSASUNGARRIA

Bizitza osasungarriaz hitz egiten dugunean, osasuntsu mantentzen, muga funtzional gutxiagorekin, laguntzen diguten eguneroko bizitzako ohitura horiei egiten diegu erreferentzia, jarduera fisikoari eta gaixotasunen eta arrisku-portaeren prebentzioari lotuta.

Ekintza: 3.10.1.- Elikadura portaeraren nahasmenduen sentsibilizazioa eta prebentzioa.

Helburua: 3.10.- Nerabeen artean elikadura portaeraren nahasmenduak prebenitzea.

DBHko 3. eta 4. mailako ikasleei zuzendutako ordubeteko hitzaldien programa (14-15 urte). Arduraduna: Osasun publikoaren zerbitzua Erantzunkidea: Gazteria zerbitzua	2023	2024	2025
	GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
	BESTE AURREKONTU BATZUK		
	1.600		
	AURREKONTU OSOA		
1.600			

Ekintza: 3.10.2.- Alkoholen kontsumoaren ondorioei buruzko eskuorri informatiboa.

Helburua: 3.10.- Gazteen artean alkoholen kontsumoa prebenitzea.

	2023	2024	2025
Bizikletak eta pertsonak mugitzeko ibilgailuak gidatzeko alkoholak dituen arriskuei aurre egiteko hedapen-materiala egitea.			
	GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
		3.000	
	BESTE AURREKONTU BATZUK		
	AURREKONTU OSOA		
		3.000	

Bizikletak eta pertsonak mugitzeko ibilgailuak gidatzeko alkoholak dituen arriskuei aurre egiteko hedapen-materiala egitea.

Arduraduna: Gazteria zerbitzua
Erantzunkidea: Udaltzaingoa eta Osasun publikoaren zerbitzua

Ekintza: 3.11.1.- Gasteizko gazteen interesen eta beharren ikerketa diagnostikoa, kirolaren eta jarduera fisikoaren gainean.

Helburua: 3.11.- Gazteen kirol-jarduerari buruzko beharrezko informazioa eta ezagutza izatea.

	2023	2024	2025
Gasteizko gazteen (12-30 urte) interesak eta beharrak ezagutzeko ikerketa-diagnostikoa egitea bai lehen mailako iturrietatik (inkestak, eztabaida-taldeak, etab.), bai bigarren mailako iturrietatik (Kirol Zerbitzuaren datuak, beste ikerketa batzuk, etab.) ateratako informazioa oinarri hartuta, udal-eskaintza gazteen eskariei eta beharrei egokitzeko.			
	GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
		18.000	
	BESTE AURREKONTU BATZUK		
	AURREKONTU OSOA		
		18.000	

Gasteizko gazteen (12-30 urte) interesak eta beharrak ezagutzeko ikerketa-diagnostikoa egitea bai lehen mailako iturrietatik (inkestak, eztabaida-taldeak, etab.), bai bigarren mailako iturrietatik (Kirol Zerbitzuaren datuak, beste ikerketa batzuk, etab.) ateratako informazioa oinarri hartuta, udal-eskaintza gazteen eskariei eta beharrei egokitzeko.

Arduraduna: Kirola zerbitzua
Erantzunkidea: Gazteria zerbitzua

HIRITARTASUNA

Planaren ardatz egituratzaileetako bat parte-hartzea dela eta askotariko dimentsioetan gauzatu behar dela kontuan izanik, oso garrantzitsua da gazteekin lanketa egitea, haien ekarpenak bizitzako arlo guztietarako funtsezkoak direla ikusarazteko. Hain zuzen ere, herritar kontzeptuak pertsona bat gizartearen parte izatearen baldintzari egiten dio erreferentzia. Horregatik lan egin beharra dago, parte-hartzean oinarritutako hezkuntzatik hasi eta bizi garen eta parte hartzen dugun gizartean partaidetza hori gara dezaketen eremuetaraino. Esan dezakegu herritarren parte-hartzea ezinbestekoa dela gure gizartearen edozein proiektu berri planteatzeko garaian.

DATU BATZUK:

EAEko 2019ko boluntariorzaren egungo egoerari buruzko ikerketak (Eusko Jaurlaritza) dio 2012tik 2016ra igo egin dela boluntariorzaren lanak egiten dituzten 15-29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, % 6,5etik % 11,5era. Boluntariorzaren jardueretan, emakume gazteen parte-hartzea gizon gazteenaren bikoitza da ia (% 15,1 eta % 8,0), emakumeen parte-hartzea gizonena baino gehiago handitu baita.

Bestalde, Euskadiko gazteen egoeraren 2020ko diagnostikoak (Eusko Jaurlaritza) islatzen du egungo testuinguru sozialaren ezaugarriak lan-prekarietatea, ziurgabetasuna eta bizi-erritmo azkarrak direla, eta horrek zaildu egiten duela gazte boluntarioek konpromiso iraunkorra izatea erakundeekin. Hala, 2015eko txostenean dagoeneko ageri zen joera indartu egin da: parte hartzeko moduak puntualagoak dira eta konpromisoaren maila txikiagoa da.

Halaber, nabarmentzekoa da 15 eta 29 urteko gazteen artean asoziazionismoaren tasa igo egin dela. 2016an, Euskadiko gazteen % 46,2 elkarteren bateko kide zen, gehienbat kirolak edo mendikoa (% 23,8), aisialdikoa (% 12,7), kulturala edo artistikoa (% 8,0), gazteena edo denbora librekoa (% 7,8), edo banda edo musika talde batekoa (% 5,3). Gainerako elkarte bakoitzean gazteen % 5 baino gutxiago dago.

Kirol-elkarteetan mutilen presentzia handiagoa da, ondorioz, mutil gazteen asoziazionismo-tasa neska gazteena baino altuagoa da (% 51,7 eta % 40,5 hurrenez hurren).

Egun, Gasteizen datu zehatz gutxi daude. Batekin elkarteak jakinarazi du 2021ean zehar haien zerbitzuetara jo zuten pertsonen ia % 60k 15 eta 29 urte artean zituela.

ABIAN DAUDEN UDAL-EKINTZAK

- **Gazteria Elkargunea:** parte hartzeko esparru nagusia da. Gazteek gazteriaren politiketan modu aktiboan parte hartzeko espazioa da.
- **Astialdi foroa:** lankidetzaz dago zabalik Astialdi Foroarekin (EGK-Euskadiko Gazteria Kontseiluaren barruan). 2021 urtean zehar, hainbat kontaktu izan ziren alde biko harremana finkatzeko eta komunikazio-trukea sustatzeko, batez ere jardueren gaineko.
- **Gazteriaren arloko eragileak:** 2020 eta 2021 urteetan zehar, bi jarduketa egin dira bideo formatuan gazte boluntarioen errealitatea zabaltzeko, alor horretan lan egiten duten gazteriaren arloko hainbat eragilerekin lankidetzan.
- Bestalde, Arabako Foru Aldundiarekin batera, ildo bat lantzen ari dira probintziako elkarteekin eta aisialdiko taldeekin, euskararen erabilerrari dagokionez zer egoeratan dauden ikusteko eta taldeen egunerokoan hizkuntzaren erabilera sustatzeko. 2022an zehar, ildo horretan lanean eta helburu hori lortzeko lagungarriak izan daitezkeen topaketak eta materialak prestatzen jarraitzen dugu, bai eta alde guztiek erronka hori komunean landu ahal izateko topaketa prestatzen ere.
